

SAGAROTEGIAK BARRENEK PROPOSATUTAKO SAGAROTEGIEN ZERRENDA
GEHIGARRIA EUSKALTEGIETAN ARIGERA • BERBETAN BEGOÑA ODRIA

BARREN

ASTEKARIA

Sagardoa txotxetik

"SAGARRA LORE LORE DENBORA DENIAN, GAZTEAK ANKAK ARIN ZOINUA DENIAN" (Esaera zaharra)



Gurekin Hasi



Gurekin Hazi

MATRIKULATZEKO ORDUTEGIA:
EGUNERO 9etatik 19,00etara

ARGIBIDEAK:
943741331 telefonoan

E.MAIL: nsp42eig@planalfa.es



Mundu eroa

Txuleta "eroak" ehitatzeko guztiei hezurra kentzeko agindu du asteon Bruselak. Asko aztoratu egin da arahakiarekin. Nola? Eta sagardotegietan zer jango dugu? Eta enkargatuta daukagun afarian? Ean hitan hasitako oilaskoak eskatuko ditugu ala faktorieta animalia-irinekin hazitako arraina? Agian hohe entsalada transgenikoa jatea. edo Alemanian egindako txerrisaltxitxa hormonaztatuak. Batek daki. Errejimena behingoz hasteko aitzakia hoberik ez dugu izango. Dena den, ez da txantxetarako gaia. Kontsumitzaileak gara galtzaile, bai, haina baita gure inguruko baserrietako produktoreak ere. Guztion mesederako informazio argia eta garbia da premiazoena.

Guzti honek bost axola indiarrei. Gainera, eurentzat hehiak sakratuak dira, eta lurrikara baino lehen ahora zer eraman aurkitzeko zailtasunak bazituzten, orain gehiago. Lurrikara eroak 100.000 lagun baino gehiago lurperatu ditu, baina zer arraio! gure arazo larriena txuleta hezur gabeak jan behar izatea da. Ez al da erokeria'?

Eta erokeriaz ari garela, Nafarroako agintarienak ez dauka izenik. Europako hizkuntza zaharrena suntsitu nahi dute, helburu politikoak medio. Ez al dago Bruselan Jegerik portaera hori kondenatzen duenik? Egiptok piramideak botako balitu, eskandalu mundiala litzateke. Honek ere hala izan beharko luke.

Mon tse Arregi



Pakea munduan

Pakea beti izan da herri eta gizarte gehienek eskuratu nahi izan duten helburua. Gaur egun munduan, historia guztian zehar gertatu den bezala, pakearen labela duen estatu taldetxoa dago, beti ere botere ekonomikoa dutenak, jakiña. Garai desberdinetan zehar espainiarrak, britainiarrak, frantziattak eta abar izan ziren bezala orain EEBB eta ingurtiko estatu ipurdigarbitzaileak dira pribilejio honen jabe.

"Drean teatn" hau munduan zehar pakea banatzera joan izan denean, euren pakea noski, beti justifikatu izan dute injustizien aurka, askatasunaren eta demokraziaren alde eta abar doazela esanaz, beti ere metodo moral eta garbienak erahiliz.

Vietnam eta Korean, Hegoameriketako leku askotan moduan, komunismoaren aurka jo zuten.

Golkoko genutean, "Kuwaiteko herriaren askatasunaren defentsan" parte hartu ei zuten. Beti ere bonbardaketa masiboak eta kalte kolateralak saihestuz, noski.

Somaliara ere janaria banatu eta biztanleriaren artean bakea banatzera joan ziren. Janaria gutxien behar zutenei eman eta pakea batez ere emakume artean banatuz bete zuten euren lana.

Azkenik, Balkanetako gerratera eurek jakingo dute zergatik joan ziren. Duela gutxi jakin izan dugu euren arma bakezaleek leuzemia sortzen dutela, soldadu eta koopeninte artean hakarrrik, ordea.

Dena pakearen izenean. Munduan zehar pakea egin eta dirua irabazi aldi herean. Hori dok pagotxa, hi! Noizean behin errezutxo botata eta kontzientzia lasai-lasai.

Unai Argarate

SaGardotFGiak	6
MOTZak	10
gehigarria	13
kiRolikk	20
aGenda	24

BEHIAK EDO GIZARTEA DAGO EROTUA?

Animalia belarjaleak erotu egiten dira haragia jaten badute. Hara! mende asko direla Plutarco idatzita laga zuen arren, hildako ugari eta eskandalo handia behar izan dute Europar Batzordeek kontsumorako animalien elikadura haragi irinak debekatzeko. Politikoez motel eta izkutuko interesen presiopean jokatu dute, eta oraindik orain milaka hildako iragartzen dira ofizialki datorren urterako

Eta zer? Zorioneko debekua etorri eta berehala kezka berriak plazaratu dira; eta zer egingo dugu orain hiltegiatiko ondarrak? Zer emango diegu animalien haragi irinen ordez? Nork ordainduko du hau guztia? Kezka horiek entzunda, zer etorriko den aurreikusten saia gaitezke; osagaiak aldatu beharko dira, merkatu berriak bilatu, baina eztabaida dagoen puntuak, ez dirudi produkzio sistema bera dudatan jarriko denik.

Aurrez haragi irina jartzen zen lekuan, orain soja transgenikoa jarriko da, edo auskalo zer, eta honek ere ekarriko du berea. Norbaitek uste al du benetan urtero milioika tona eta milaka milioi pezeta mugitzen dituzten hiltegiatiko ondarrak edo hildako abereak aprobetxatu gabe galtzen lagako direla, DDT produzitzen eta Hegoaldeko herrietara esportatzen jarraitzen duen sistema honetan?

Behi eroen krisia alarma seinale berri bat besterik ez da; nekazaritzatik gero eta urrutiago, eta ikuspegi industrial-empresarialetik gero eta gertuago dagoen produkzio sistema baten bidegabekeriaren seinalea. Kontsumitzaileen elkartetako ordezkariak informazio garbiagoa aldarrikatzen dute eta erabaki organuetan partehartzea. Kontrol sistema zorrotzak eskatzen dituzte baina, guztiarekin ere, ez dira erabat fidatzen. Iruzuraren arriskua beti gainean izango da. Hau guztia gutxi balitz, kontsumitzaileen gutxiengoak, beste galderarik egin gabe "merke eta ona" bilatzen jarraitzen du, baina batez ere "merkea".

Balore eskala aldatzen ez den bitartean eta elikagaien produkzio sistemak, "irabazi handiakoak, koste baxuak!" ideologia industrial barneratuta duen bitartean, ez da faltako edukiaren kaltetan pezeta bat aurreratzeko prest egongo denik. Ez, arazoa ez dago pentsuetan, sisteman baizik, gure pentsamoldean. Gu gara arazoa, hurrengo eskandalora arte. Behiak ez dira eroak, gizartea dago erotuta.

P. R. NAN. 72416471

'Biollur' elkartearen izenean

MENDAROKO EAJRI

Igaro den urte bukaeran etxez etxe banatu zenuten txostena dela-eta berriro ere, hirugarren aldiz, gure haserre adierazi nahi dugu 'In Leike'ko euskera taldetik, euskararen inguruan duzun jarrearekiko.

Uste dugu euskaldunon eskubidea dela udaletxeak, eta kasu honetan, EA.lk herriari zuzenduriko txosten, agiri eta komunikatuak euskaraz irakurri ahal izatea. Bestalde, lotsagarria iruditzen zaigu gaur egunean euskara jasaten ari den egoera ikusirik, Mendaro batean, herriari zuzenduriko txosten bat erdera hutsean banatzea.

Mota honetako eskutitza idazten dugun azken aldia izatea espero dugu.

~In Leike'ko euskara taldearen izenean

E.E

NAN 15386270

ASTEKARIA BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
s 943 74 41 12
Publizitatea:
s 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

barren @topagunea-com
Helbide informatikoa:
www.thardun.comfbarren
ADWARTZAILA
El;r. r,o Umra

LAGUNTAILA Elgoibarko Uclafa ZUZENDARIA EII
Arzpum KAZERSAIS kalt Agirreazaldegi, Amer
Orbea PUSURRREA Andoitz Agirregomezkorta
MAKETATEALEA Bea Ansola ADMINISTRAZIOA Amaia
Rodriguez Garteurzut Rafa Alvarez. M Angeles
Oducste. KOLADORATZAILAK Amaia Lariz, Unal
Argstrate, EguzkiNe Aranbem, Lorea Parez de
Albeniz, Arlor Zabaleta, Leire Urkidi, Olga Unzilla,
Mordise Arregi, Juanito Gorostiza, Amaia Urzelai,
Ion Gurrubaga, Ainboa Andoneg, Kokoe K.E. eta
Urruzuno L.T. AzAkom ESALDIA Gotzon Garateren
liburatik AZALEKO iauou Gute sagardoa Iburutik
INPRIMATEGIA Geru Komp E. TIFIADA 4.000 EIE LEGE
GOGGAIDA SS.1.039192 ISSN 1139.1855

ELGOIBARKO IZARRA
a•Lrua LLLLLL

Elgoibarko Utlatak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta For Alduudiak diruz lagundutako aldizkaria



gu.us.mo,
b.:

IPAMPPAT

LSGOITI
GFWEU DANOFIAT

ESKERTZA

2000ko urtarrilaren leian, 79 urte zituela hil zen
EUSEBIA ARRIETA LIZARRALDEren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



alkatea banin z

Eigoibarren bacia zer hobetua!



- Emakume batek honako kexa hau helarazi digu: "Urkaregin, Elgoibar eta Etxebarria arteko mugan, parke txiki bat dago eta norbaitek **lau zuhaitz landare rnoztu eta bertan laga ditu**. Txoko eder hau auzo lanari eta Udalarri esker eraikitakoa da eta ez dakit nola okurri daitekeen horrelako gauzak egitea".

- Urasandiko bizilagun batek deitu digu bertan **aparkaleku gutxi** daudela satatzeko eta aldi berean **honako hau ere esan digu**: "Aparkaleku falta nabarmena da baina gainera, kontenedoreak ipini dituzte aparkalekuetan. Zakarrontziak ipintzea ondo dago baina mesedez, ez kendu aparkalekurik".

- Urasandiko gizonetako batek proposamena egin nahi die arduradunei: "Urasandiko **zubiaren hasieran eta lorategi parean zebra bide altxatuak ipini beharko lituzkete**. Jende asko ibili ohi da eta inor ez da geklitzen, neu barne, orain dauden zebra bideetan", -dio kezkatuta.



Etan
l'annrijnidu
tinL.
Nierlatu egiten din
eta egunero kirri ibittlen uaiJ aparkaty.2.1a1
lekna tupatiekt). Bcr,J, latterit Izatui.enont/at
aparkaleku bereriak jarriko etto
behintiat leltenta,una ungingo meke atuoat
lzwera etortieko erabiltien ;'fe.
it'1.1) dird ero•Ltdren bat eki.)
hat hartiera crdigunera autt'an
eta lloriek beletin leLua kentien
digute.■raio honi aurre egite!0 nuidu hat
Pia/a TN.ikian lur aparhatekuak
egintea tian daileke. Il.lu da. "zoian pla7a
here horretan mantendu eta paitca
autoak •art/ektlegokitu,

PEPI CALI_EJA
Dendaria

BARRAK, BARRAK eta BARRAK



ABURUZA (Aduna)

- NAGUSIA: J. Joxe Aburuza Otegi.
- SAGARDOTEGI SASOIA: urtarrietik irailera.
- JATEKOA: sagardotegiko menua.
- LEKUA: 300 lagun.

Olatza baserria (Aduna)
w 943 69 24 52



ARRATZAIN (Usurbil)

- NAGUSIA: M. Luisa Arana Alustiza.
- SAGARDOTEGI SASOIA: urtarrietik apirilera arte. Urte osoan erretegia.
- JATEKOA: sagardotegiko menua.
- LEKUA: 120 lagun.

Arratzain Auzoa (Usurbil)
Tr 943 58 09 74



GOIKO.LASTOLA (Hernani)

- NAGUSIA: Lazaro Etxabe Zerain.
- SAGARDOTEGI SASOIA: urtarrietik apirilaren bukaerara arte.
- JATEKOA: sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- LEKUA: 80 lagun.

Ereñozu Auzoa (Hernani)
tr 943 55 32 72



GURUTZETA (Astigarraga)

- NAGUSIA: Gurutzeta S. A. T.
- SAGARDOTEGI SASOIA: txotx garaia.
- JATEKOA: sagardotegiko menua.
- LEKUA: 110 lagun zutik.

Oialume bidea, 59 (Astigarraga)
Tr 943 55 22 42



TOLAREDLIN
sagardotegia

LARREGAIN (Hernani)

- NAGUSIA: ixabel Santa Kruz.
- SAGARDOTEGI SASOIA: urtarrietik apirilaren bukaerara arte. Asteleheneretan eta igande gauetan itxita.
- JATEKOA: sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- LEKUA: 120 lagun.

Larregain etlea, Ereñozu (Hernani)
tr 943 55 58 46



MIZPIRADI (Andoain)

- NAGUSIA: Angel Arruabarrena.
- SAGARDOTEGI SASOIA: urtarrietik apirilaren bukaerara arte.
- JATEKOA: sagardotegiko menua zein norberak eramandakoa.
- LEKUA: 80 lagun.

Leizotz Auzoa (Andoain)
Tr 943 59 39 54



AULIA (Legorreta)

- **SAGARDETEGI SASOIA:** Santa Luziatik maiatzaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 110 lagun.

Aulia Enea baserria (Legorreta)
Tr 943 80 60 66



EIZMENDI (Hernanij)

- **NAGUSIA:** Maixa Ezmendi.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 160 lagun.

Osinaga auzoa (Hemani)
Tr 943 55 64 05



ELUTXETA (Urnietia)

- **NAGUSIA:** Frantzisko Urruzola.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urte osoan, astelehenetan ezik.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 200 lagun.

Elutxeta baserria (Urnietia)
943 55 69 81



1,01

- **NAGUSIA:** Migel Mari Lasa Arostegi.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik maiatzera arte.
- **LEKUA:** 200 lagun.

Aldaba-Txiki auzoa, 15 (Tolosa)
Tr 943 65 29 64



[Blank]

- **NAGUSIA:** Inazio Korta.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urte guztia.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua eta mariskoa.
- **LEKUA:** 110 lagun.

Korta sagardotegia (Gabiria)
Tr 943 88 71 86



LikKA ERDI (Berriatua)

- **NAGUSIA:** Juan Amallobieta.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urte osoan.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 350 lagun.


Lekeitio Bidea Milloi gaina (Berriatua)
Er 946 13 91 78



OTATZA (Zerain)

- **NAGUSIA:** Ramoni Lopetegi.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik apirilaren bukaerara arte. Asteazkenetan itxita. Udan, erretegia.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 140 lagun.

Otatza baserria (Zerain)
943 80 17 57



OTSUENEA (Hernani)

- **NAGUSIA:** Ximon Etxeberria.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 120 lagun.

Osinaga auzoa (Hernani)
943 55 68 94



ZABALA (Aduna)

- **NAGUSIA:** Ramon Zabala Mendizabal.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik maiatzera arte. Igande eta larunbat eguerditan, enkarguz. Gauetan zabalik.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.

Garagartza Baserria (Aduna)
Tr 943 69 07 74



Europar Batasunak behi txuletak merkatutik kentzea epabaki du THULETAK KENDUZ GERO JOANGO AL ZARA SAGARDOTEGIRA?



MARIBEL ARRIOLA
65 urte, etxeoandrea

Ez naiz juten, baina jungo nintzake. Hala ere uste dot jende gitxio jungo dala. Ni ez naiz txuletia jatekoa eta etxian ere haragi gitxi jaten dot.

SABINO THURRUKA
65 urte, jubilatua

Lehen ere ez naiz juten sagardotegira, baina jendiak jutiari lagatzia zaila izango da. Ni txuletazalia naiz, eta hazur ondokua nahixao dot gainera.



IÑAKI AMESTI
46 urte, aurre-jubilatua

Bai, sagardua gustau eitzen jata-eta. Jendiak ere berdin segiko dau juten. Nik okelia lehen hezela jaten dot, ardurarik gabe.

ASCENSION MORENO
55 urte, etxeoandrea

13hin baino ez naiz joan, eta ez dakit bueltatuko naizen. Jendea orain ere joango dela uste dut, besterik ez hada hezurrik gabeko txuleta jarriko dute.



MARIA JESUS ARCE
41 urte, etxeoandrea

Txuletarekin edo gabe berdin joango nintzateke. Gainera, tontokeria bat iruditzen zait orain debekatzea, okela txarrik egon hada honezkero janda egongo dira

VICTOR BAZ


32 urte, tratamendu termikoak

Agian ez, hori sagardoa kentzea bezalaxe litzateke. Haragiarekin egiten ari direna gehiegizkoa da, nahikoa kalitate badago-eta.



MEZA

2000ko azaroaren 8an, 44 urte zituela izil zen ARANTZA IRIONDO ZULAIKAREN lagunak bere oroimenez MEZA eskainiko diote larubatean, hilak 27, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ
3 Etxeberria (Sonlo Ana kalean)	Etxeberria
4 Etxeberria (Sonla Ana kalean)	Etxeberria
5 Fernandez	Fernandez
6 Yudego	Yudego
7 Zabaleta	Zabaleta
8 Etxeberria (Sonto Ana kalean)	Etxeberria
9 Escala	Escala

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, I Soraluze

Tel 943 75 16 38

FERNANDEZ,

herriko enparanIzo 4, Garagarza

Tel 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren. 9 Scroluze.

Tel, 943 75 13 84

OKINDEGIA


4 igandea Zabaleta

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzt

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK • TRASLADOAK • KOROAK



NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.

Donostia eta
• probintziako
eritexe zentroetan
ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

URTARRILA

JAIOTAKOAK

Asier Marcilla Plaza

Urtarrilak 1

Alaitz Urtubia Garate

Urtarrilak 2

Andrea Ortega Delgado

Urtarrilak 4

Onintza Elizburu Vela

Urtarrilak 7

Iris Uribarri Muñoz

Urtarrilak 9

Jon Ortega Valenciano

Urtarrilak 14

EZKONTZAK

Ez da ezkontzarik egon.

IIIILDAKOAK

Maria Osoro Areitio

92 urte, urtarrilak 9

Eusebia Arrieta Lizarralde

79 urte, urtarrilak 26

Sei lapurreta salatu dira urtarrilean Elgoibarren eta Mendaron

Debarroan lapur talde bat dabilen susmoa du ertzaintzak



Gabon inguruan herrian izandako hainbat lapurretaren ostean, urtarrilean ere Elgoibarko etxe batzuetan ostu dutela jakin dugu eta Udaltzaingora jo dugu informazio bila. Bertan adierazi digutenez, oso modu berezian sartu ziren lapurrak etxeetan, beraz, kasuak Ertzaintzaren esku laga dituzte. Herrizaingo Saileko iturrien arabera, Elgoibar eta Mendaroko 6 etxebizitzatan lapurtu dute. Lapurretak eguerdi partean izan omen dira, eta arropak, bitxiak, dirua, argazki kamerak... eraman dituzte. Bi modutan egin dira lapurretak: aterik fortzatu gabe, plastikozko txartelak erabiliz; edo markoa eta atea puskatuz. Elgoibarren ezezik inguruko beste herrietan ere izan dira lapurretak, eta ertzainek banda bat ote dabilen susmoa daukate.

Ertzaintzatik hainbat gomendlo entan dizkigute lapurretak ebitatzeko eta gertatuz gero zer egin jakiteko:

Atea beti giltzaz itxi.

.03 Inguruan andamioekin abrak egiten ari badira atea eta leihoak itxi, eta ahalik eta denbara gutxien utzi etxea hutsik.

Ate, leiho, balkoi eta sarrailak ondo al dauden begiratu.

Etxean diru asko edo baliozko gauzak baldin badituzue, segurtasun-kutxa jarri.

Giltzatakoi ez jarri helbide, telefono edo izenik.

Ezezagunen aurrean ez esan zure ordutegiak, ezta eguneroko ohiturak ere.

Oporretara joanez gero, konfidantzako norbaiti eskatu kartak buzoitik hartzeko eta pertsianak noizean behin zabaltzeko.

Momentu baterako alde eginez gero, argiren bat edo irratia piztuta laga.

Etxera iristean atea irekita edo fortzatuta badago, ez sartu, 112 telefonora edo ertzaintzaren komisoriara deitu.

:bzl Lapurreta argitzeko ez da komeni ezer ikutzea.

Lapurrekin topo eginez gero, ez aurka egin, gogoan hartu itxura, arropa eta beste ezaugarri batzuk.


Denuntzia egiterakoan lapurtutako gauzen zerrenda eta dokumentazioa eraman. Aseguru etxera joatea ere gomendagarri: da.

Mintxetan kanpoko igerilekuak egiteko proiektua onartu zen plenoan

Piszipina bat helduentzako izango da eta umeentzat bestea

Joa den ostiralean, urtarrilaren 26an, egindako Udal plenoan Mintxetako futbol zelaiaren atzealdean kanpoko piszipinak egiteko proiektua onartu zen zinegotzi guztien baiezkotoarekin,

Piszipinak igeriketarako baino, aisialdirako izango dira, beraz, ez da igerileku hauetan Kiroldegikoan bezelako kalerik egongo. Proiektu honen arabera bi igerileku eraikiko dituzte: bata handia (750 m²koa), helduentzat, erdian islatxo bat izango duena; Eta umeentzako igerileku



Zinegotzi guztiek baiezkotoa eman zioten Mintxetako atzealdean piszipinak egiteko proiektuari.

txikiagoa bestea, sakonera gutxiagokoa. Bestalde, piszipinen inguruan eguzkia hartzeko moduko gune berdea izango da, eta kafetegi bat ipintzeko asmoa ere badago.

Proiektuak 138 milioi pezetako aurrekontua du. Udalak jadanik 28 milioi pezeta gordeak ditu igerilekuak egiteko eta gainontzekoa lortzeko aukera izango dutela uste dute. Besteak beste, hainbat lursailen salmentatik dirua eskuratuko dute, eta aurtengo udal aurrekontuan ere zati bat piszipinentzako izango da.



iaztui ingeni baidu ziren Hantan Diazen hilketaren aurka ostiralean egin zen konlientraian

azuraldia lagun izan ez bazen ere, joan den ostiral eguerdian, hilaren 26an, kontzentrazioa egin zen Plazan, Ramon Diazen hilketaren aurka protestatzeko. ETAK Donostiako Loiola auzoan bonba auto hat ezandarazita hil zuen pasa den astean. Horrelako hilketak egon ohi diren beste kasuetan bezala, oraingoan ere 15 minutuz isilean kontzentratu ostean, txaloka amaitu zuten kale agerraldia.



Mipen Arrate Arrieta da EAko zinegotzi berria

Ignacio Mugerza zinegotziak lana eta Udaleko kargua bateratu ezin zituelako kargua laga ondoren, Miren Arrate Arrietak hartu zuen joan den ostiraleko plenoan zinegotzi postua. Hemendik aurrera bera izango da Eusko Alkartasuna alderdia ordezkatuz Erakunde Autonomoen Batzordeko lehendakaria Udalean,

Misio Taldekoek herritarren kolaborazioa eskertu dute

Parrokiako Misio Taldeak BARREnera bidalitako ohar baten bidez elgoibartarrei eskerrak eman nahi dizkie herrialde pobreei laguntzeko antolatutako dendak izan duen arrakastarengatik, aurten salmentek gora egin baitute. Baita Errosario kaleko lokala laga dieten Odria familiakoei ere. Bestalde, misioetarako bendak prestatzen dituztenei ohiko lekuetara lehenbailehen eramateko deia luzatu nahi diete, Iaster bidaliko baitituzte. Gainera, norbaitek misioetan edo Hirugarren Munduan dagoen elgoibartarrik ezagutuko balu, bere helbidea sakristian edo Misio Taldekoen eskuetan lagatzea eskertuko Iuketela ere adierazi nahi dute.

euskara ikasteko AUKERA PAREGABEA



- ▶ MAILA GUZTIAK, EGA eta PERFILAK
- ▶ GOEEZ, ARRATSALDEZ eta GAUEZ
- ▶ GURASO, IKASLE eta LANGABETUEK MATRIKULA ERDIA
- ▶ BEKA SISTEMA UDALAREN LAGUNTZAZ

aeK

EUSKALTEGIA
Plaza txikia, 3 Tel. 943 74 13 32



San Juan Bosco Eguna ospatu zuten Institutuan urtarrilaren 26an



Urtarrilak 31, San Juan Bosco Eguna, Ikasketa Ertaineffiko ikasleek beraien patroiarenegunaren aitzakian, data aurreratu eta ostirala, urtarrilak 26a aukeratu zuten ospakizunetarako. Korrika, bizikletan, tortilak egiten, goitibeheretan... ikasten bezain anak edo hobeak direla erakutsi zuten Institutuko ikasleek. Goizean nekatu ostean, bazkaldu eta indarberrituta arratsaldean dantzan jarraitu zuten herriko tabernetan. Santuaren aitzakian oso santu ibili ez baziren ere, urtean behin ikasketak ahaztu eta ikasle zein irakaskek ere dibertitzen badakite1a demostratu zuten.

Jende ugari bildu zen Ikastolako frontolan ikasleen jaialdia ikusteko



Guraso, irakask efa ikasleek Ikastolako frontoia lepo bete zuten joan den ostira1ean, hilaren 26an, urteroko ikasleen jaialdia ikusteko. Eskolaurreko txikienetatik hasi eta 6. mailako ikasleetaraino kantu, clantza... eskaini zituzten ikasleek. Gurasoen argazki efa bideo kamaren aurrean artista handiak bezala moldatzeko gai direla erakutsi zuten gainera. Bertaratutakoek giro politean pasa zuten arratsaldea etxeko txikiei begira, eta beraien ekitaldiekin gozatuz.

OIERK1 IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua

: 943 82 01 09 -, Faxa: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, behea II **20600 EIBAR**

EUSKO JAURLARITZA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Jardineta, 3 bis
EIBAR

2000/01 KURTSORAKO
MATRIKULA LIBREA

Sobre jasotzea otsailaren letik 23ra izango da.
NAN.a BEHARREZKOA DA
Informazio gehiago 943 20 06 18

euskaltegi¹ etan ari.gera

ARIGERAK kaleratu duen liburuaren egileak

Rmaia Arrizabalaga eto Imanol Larrañaga

"44 urteotan egindako lana jasotzea eta ezagutzera ematea izan da gure nahia"

Nondik atera duzue informazioa?

Gehiena jendearen ahotik jasotakoa da; 24 lagun ingururekin egon gara eta infonazio garrantzitsuena jendeak esandakotik atera dugu. Gero, artxiobotan ere ibili gara, makina bat akta ere begiratu dugu,... Han eta hemen ibili ondoren. L.añantzitsuena jaso dugulakoan gaude.

Lan erraza izan al da?

Ez pentsa. 44 urteko historia bildu nahi izan dugu, eta badakizu, 44 urtean jende eta gauza asko pasatzen da. Gainera, askori ahaztu egin zaizkie gauzak. Baina benetan eskertzekoa izan da jendeak erakutsi duen jarrera, denak ere prest egon dira gogoan zeukatena guri kontatzeko.

Norentzat idatzi duzue liburuxka?

Helburu printzipala 44 urteotan egin den lana paperean jasota lagatzea izan da. Gau-eskolaren garaian ibilitakoeak (56-82) gustura iralomiko dituzte orduko ipuinak. Bestalde, gazteontzat ere, osasuntsua da noizean behin gure aurrekoen jardunari erreparatzea. Ikasteko asko egoten da!

Irakurtzeko atsegina al da?

Hori irakurleok esan beharko duzue. Gu szauza arin bat egiten saiatu gara, edozeinek irakurtzeko modukoa. Bitxikeriak, jendearen berbak, entresakak eta pasarte xebleak ere sartu ditugu irakurketa goxatzeko.

Bitxikeriaren bat kontatuko al diguzue?

Bai. Itziar Condek gogoan dauka 56an eskolak Falangearen lokaletan ematen zituztela eta mahaiaik (zikinak itxura denez) Espainiako banderarekin garbitzen zituztela! Ikustekoa da urteak pasa arren batzuek nola gogoratzen dituzten orduko ipuinak.



1966 .2000
44 urteko historia



Izenburuak dioen bezala, 1956an hasi ziren lehen aldiz elgoibartarrak euskara ikasten. Herri mugimendutik irten zen sektore hau, urteen eta esperientziaren poderioz, profesionalizatuz joan zen. 16 urte inguru egin zituen Elgoibarko Izarraren gau-eskolak elgoibartarrak euskalduntzen eta alfabetatzen eta 1982an AEKren gau-eskola izatera pasatu zen. Urte berean, EAJk ere bere euskaltegia jarri zuen martxan eta Udal Euskaltegia, berriz, 1983an sortu zuen Elgoibarko Udalak. Batzokiko euskaltegiak 1987ra arte iraun zuen eta harrezkero AEK eta UDAL Euskaltegiak izan dira Elgoibarko helduell euskalduntze eta alfabetatzeaz arduratu diren bi erakundeak. Hitzaurrea Gotzon Garatek eta Angeles Exp6sitok egin dute. Liburuxkak 50 orri ditu eta tirada 800 alekoa izan da. Babesleak, berriz, Kutxa, Udala eta Euskadiko Kutxa izan dira.

Liburua eskuratu nahi duenak jo dezala Elgoibarko Izarrara, AEK euskaltegira, UDAL Euskaltegira edo Udalaren Euskara Zerbitzura eta bertan eskuratu ahal izango du doan.

ELGOIBARKO HELDUEN EUSKALDIMZEALFA

1956tik gaur egun arte sektore honetan jardun duten eragile, euskara ikasle eta irakasleen lana eta esfortzua eskertu eta txalotu zuten A RIGERA proiektuko arduradunek zapatuan egindako bazkari-onzenaldian. Arigerak antolatutako bazkari-onzenaldian 110 lagun elkartu ziren eta giroa betzetan jatorra izan zelajakin dugu.



1



Elragile eta laguntzaile izan diren Eliza, — EAJ, Ikastola eta Udaleri ARIGERako teknikariak azaldu zien guztien esker ona. Besteak beste, lokalak utzi dituztelako, euskara irakasten jardun dutelako eta bestelako laguntzak ere eskaini dituztelako.



Gau-eskola eta euskaltegietako irakasleei Elgoibar eta elgoibartarrok euskalduntzeko egin duten lanaren ordainetan, 44 urteotako euskara ikasle guztien izenean bi ikaslek eman zizkieten eskerrak. 1956an ikasten jardun zuen Itziarrek eta Joseanek gaur egun ikasten ari den ikasleak.



ykasleek ere, euskara ikasteko egiten duten esfortzuagatik, irakasle eta elgoibartarren eskerrak eta txaloak jaso zituzten. Irakasle guztien izenean, gau-eskolan hasi eta gaur egungo euskaltegietan diharduten Itziarrek eta Izaskunek hitz egin zuten.

ETATZEARI OMENALDIA



Nola gogoratzen duzu ikaslefirokasle garaio?




Itzior Conde
Gou-eskoloko ikosle

"1956an, izkutuan joaten ginan euskara ikastera. Gero, Ikastola berrira pasatu ginanian, aldaketa ikaragarria nabaritu genduan; Iokal hobiak, material gehixao eta maixuak ere hobeto prestatuta zaozen".



Rosorio Rndonegi
Botzokiko euskoltegioko irokosle

"Ilusio handiz hasi ginan klasiak ematen. Reto bat izan zan. Jende jatorra euki naban klasian eta jende nagusixakin batez ere, oso gustora ibili nintzan. Oroimen ona dakat eta orduan ezagututako jente asko laguna dot orain".



Victor Nñez
Gou-eskoloko ikosle

"Ikastolan hasi nintzan klaseak hartzen eta gustora ibili ginen. Irakasleekin ere oso harreman ona geneukan eta giro polita zegoen. Batzuetan desmoralizatuta egon nintzen zaila egiten zitzaidalako euskaraz egitea baina jendearekin euskaraz hitz egitera iritsi naiz".



Luis Bilbao
Gou-eskoloko irokosle

"70. hamarkadan hasi nintzan ni. Gehixao ein ezinan penia geratu jata. Preparau gabe ibili ginan baina ahalegina ein genduan, biharra baizauan. Felix Etxeberrian anparuan ibili ginan. Euskeriak indartu biharra zakan eta gaztien ikasi nahixak animatu gintuan".



Juan Ma Mendizabalen anaiak, Pako Juaristi zenaren alargunak eta Felix Etxeberriak ere guztien txaloak jaso zituzten Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetazearen alde egin duten lanagatik eta ondoren HARITZ Euskal Dantzari Taldekoek aureskua dantzatu zieten.



Omenaldi ekitaldiaren ondoren, jendeak gustura jardun zuen dantzan eta kantuan Aitor 'Furunda' soinu-jolearekin batera ia gaueko 9ak arte.

GALDEcepolde

ARIGERA proiektuak bere esker ona azaldu die gau-eskola sortu zenetik euskara ikasten jardun dutenei

Zure ingurukoek boloratzen al dute euskara ikasteko egiten ori zoren ahalegina?



MAITE GARCIA

Behe maila

Euskaltegian hasia erabaki nuenean, familiak, senarrak eta altaginarrek asko lagundu zidaten. Senarrak gehienbat, euskaraz badakielako. Orain, berarekin praktikatzen dut.



MONTAÑA DIAZ

Behe maila

Familiak, lan taldeak eta lagunak asko lagundu didate. Horrela, lantokian bezeroekin eta lagunekin euskaraz hitz egin dezaket.



MARISA SOLARES

Goi maila

Inguruko pare batek izan ezik, besteek ez dut uste. Gehienak, bultzatu beharrean, lana amaitu eta gero alferkeriarako gogorik ez al daukadan galdetzen didate. Baina argi daukat jarraituko dudala.



Ma CARMEN AGUILERA

Behe maila

Alabagatik hasi nintzen euskara ikasten gero berari erakusteko. Senarrak eta familiak asko lagundu didate. Euskaraz hitz egiten ez dakitenak animatu nahi ditut ikastera.



MARIBEL VAZQUEZ

Behe maila

Ez dakit baloratuko duten ala ez. Niri denetik esan didate. Batzuk, nire seme-alabak adibidez, asko animatu naute. Beste batzuk berriz, alferrik dela ere esan didate.



LUIS AGIRREGOMEZKORTA

Goi maila

Nire emazteak, anai-arrebak eta amak asko baloratzen dute egiten ari naizena. Inguruko batzuk ere bai, baina normalean jendea bere "rollerra doa eta ez da arduratzen.

“OKERRAK ZUZENTZEN” LEHIAKETA

1. Tapatuan goizerraino ibili ginen parrandan.
2. Nork daki gitarra ikutzen?
3. Baso bat ur, mesedez.
4. Aurten pailazo jantziko naiz.
5. Joan laikenaiz komunera?
6. Auto berria erosi dugu,
7. Ez dut ezer ulertu.
8. Daukazu sua?

Parte hartzen cluzuenon artean
AFARI BAT zozketatuko dugu!

Zortzi esaldi hauetan, 4 zuzen daude eta beste 4 okerrak dira. Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, okerrak zein diren asmatu eta zuzen idatzi behar dituzu. Okerrak zuzendu ostean, mozi-u papera marra etenetik eta bidali honaka helbidera otsailaren 23a baino lehen: Arigera proiektua. Ilbitarte 4, behea 20870 Elgoibar. Euskara ikasleok euskabegietan ere entrega dezakezue.



AURREKO HILEKO **IRABAZLEA**

ENCARNI CRESPO MORA da

Saria: Bi pertsonarentzat ctitaria
Toletxe tabernan

Eusko

TRENAK

DONOSTIA-BILBO

Astelehenetik ostiral lanegunetara
Donostia Azsay 5.-17 06.47
Elgoibar 07.02 08.02
Eibar 07.13

BILBO-DONOSTIA

Astelehenetik ostiral lanegunetara
Bilbo 06.00
Eibar 06.13 07.13
Elgoibar 06.23 07.23

DONOSTIA-BILBO

Egunero

AMARA

07.47 08.47 09.47 10.47 11.47 12.47

Elgoibar

09.02 10.02 11.02 12.02 13.02 14.02

Eibar

09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14.13

Donostia : ■ I tit;

13.47 14.47 15.47 16.47 17.47 18.47 19.47 20.47

Elgoibar

15.02 16.02 17.02 18.02 19.02 20.02 21.02 22.02

Eibar

15.13 16.13 17.13 18.13 19.13 20.13 21.13 22.13

BILBO-DONOSTIA

Egunero

Bilbo

08:00 09:00 10:00 11:00 12:00 13:00

Eibar

08.13 09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14.13

Elgoibar

08.23 09.23 10.23 11.23 12.23 13.23 14.23

Bilbo

14.00 15.00 16.00 17.00 18.00 19.00 20.00

Eibar

15.13 16.13 17.13 18.13 19.13 20.13 21.13

Elgoibar

15.23 16.23 17.23 18.23 19.23 20.23 21.23

Eusko Tren

AUTOBUSAK

MENDARO-ELGOIBAR

Astelehenetik ostiral lanegunetara

Mendaro 06.30 07.20 ..

Elgoibar 06.40 07.30 -

'orduclim. Mendaron 21.50ean azkena

Larunbata, igandea eta jaiegunetan

Mendaro 07.50 09.10 9.50 11.10 11.50

Elgoibar 08.00 09.20 10.00 11.20 12.00

'onluoro, Mendaron 21.50ean azkena

ELGOIRALMENDARO

Astelehenetik ostiral lanegunetara

Elgoibar 06.25 07.25 07.55 08.25

Mendaro 06.35 07.40 08.10 08.40

'orcluediro, Elgoiharren 21.25ean azkena

Larunbata, igandea eta jaiegunetan

Elgoibar 07.25 08.25 09.25 10.25

Mendaro 07.40 08.35 09.40 10.35

'ordueto, Elgoibarren 21.25ean azkena

AUTOBUSAK

AZPEITIA-BILBO

Astelehenetik ostiral lanegunetara

Elgoibar 06.50 13.20 18.50

Eihar 07.00 13.30 19.00

Larunbatak lanegunak

Elgoibar 09.50 14.50 18.50

Eihar 10.00 15.00 19.00

Igande eta Jaiegunetan

Elgoibar 9.50 19.50

Eihar 10.00 20.00

BILBO-AZPEITIA

Astelehenetik ostiral lanegunetara

Bilbo 10.30 14.30 21.00

Eibar 11.20 15.15 21.-15

Elgoibar 11.30 15.25 21.55

Larunbat lanegunak

Bilbo 9.30 14.30 21.00

Eibar 10.15 15.15 21.45

Elgoibar 10.25 15.25 21.55

Igande eta jaiegunetan

Bilbo 12.30 21.00

Eibar 13.15 21.45

Elgoibar 13.25 21.55

ONDARROA-BILBO

Astelehenetik ostiral lanegunetara

Elgoibar 07.45 08.45 14.45 17.45

Eihar 8.00 9.00 15.00 18.00

Larunbat lanegunak

Elgoibar 7.45 8.45 14.45 17.45

Eihar 8.00 9.00 15.00 18.00

Igande eta jaiegunetan

Elgoibar 8.45 14.45 18.05 19.45

Eibar 9.00 15.00 18.15 20.00

BILBO-ONDARROA

Astelehenetik ostiral lanegunetara

Bilbo 9.00 12.30 17.30 19.30

Eibar 9.45 13.15 18.15 20.15

Elgoibar 9.55 13.25 18.25 20.25

Larunbat lanegunak

Bilbo 10.30 12.30 17.30 19.30

Eibar 11.15 13.15 18.15 20.15

Elgoibar 11.25 13.25 18.25 20.25

Igande eta jaiegunetan

Bilbo 10.30 17.30 19.30 22.00

Eibar 11.15 18.15 20.15 22.45

Elgoibar 11.25 18.25 20.25 22.55

DONOSTIA-ERMUA (Autopista)

Astelehenetik ostiral lanegunetara

Donostia 7.00 9.30 12.30 13.30 14.30

Elgoibar 7.35 10.05 13.05 14.05 15.05

Eihar 7.50 10.20 13.20 14.20 15.20

Donostia 15.00 17.30 18.30 19.30 20.45

Elgoibar 15.35 18.05 19.05 20.05 21.20

Eibar 15.50 18.20 19.20 20.20 21.30

Larunbat lanegunak

Donostia 12.30 15.00 17.30 19.30 20.45

Elgoibar 13.05 15.35 18.05 20.05 21.20

Eihar 13.20 15.50 18.20 20.20 21.30

Igande eta jaiegunetan

Donostia 12.30 17.30 19.30 20.45

Elgoibar 13.05 18.05 20.05 21.20

Eibar 13.20 18.20 20.20 21.30

ERMUA-DONOSTIA (Autopista)

Astelehenetik ostiral lanegunetara

Eihar 7.00 7.30 8.00 8.50 10.30 13.30

Elgoibar 7.10 7.40 8.10 9.00 10.40 13.40

Eibar 14.30 15.30 18.30 20.30

Elgoibar 14.40 15.40 18.40 20.40

Larunbat lanegunak

Eihar 7.00 8.50 10.30 13.30 18.30

Elgoibar 7.10 9.00 10.40 18.40

Igande eta jaiegunetan

Eibar 9.30 13.30 15.30 18.30 20.30

Elgoibar 9.40 13.40 15.40 18.40 20.40

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia . 943 03 26 10

Planning-a . 943 74 29 50

Aholiko Anonimoak 94374 03 85

D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22

Gurutze Gorria 943 74 38 64

Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00

Odol Emaileak 943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . 943 74 04 42

PESA (Eibar) . 902 10 12 10

Taxi geltaioa . 943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua . 943 74 43 66

Udal Kirol Patronatua . 943 74 44 15

Kultura Zerbitzua 943 74 21 58

Mendaroko Udala 943 75 61 00

Ongtate zerbitzua 943 74 10 08

Udaletxea . 943 74 10 50

Udaltzaingoa . 943 74 13 94

BESTELAKOAK

Eigolbarko Izarra . 943 74 16 26

Kiroldegia . 943 74 44 15

Kontsmo Bulegoa 943 74 30 88

Liburutegia . 943 74 35 25

Musika Eskola 943 74 21 45

Mintxeta 943 74 43 15

Parrokia 943 74 08 42

Postetxea . 943 74 15 47

Gaztetxea . 943 74 35 72

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza . 943 74 02 96

Zaharren Biltokia . 943 74 05 26

Eguneko Zentroa 943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola . 943 74 21 41

HII (EPA) . 943 74 08 80

Herri Eskola . 943 74 08 79

I.M.H. . 943 74 41 32

Institutua

Arreiturre . 943 74 80 19

Ezenarro (Meka) . 943 74 80 19

Ikasto la 943 74 44 41

Pilar Ikastetxea . 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN. . 943 74 41 12

El Diario Vasco . 943 74 40 73

El Correo Espanol . 943 74 10 82

Zazpilo irratia . 943 74 34 74

Egunkaria 943 30 02 28

Gara 943 31 69 99

Santa Agedaren omenez eskeak egingo dira otsailaren 3an eta 4an Elgoibarko kale eta baserrietan

GAZ-T taldekoak ere estreinekoz aterako dira koplak kantari San Roke auzoan

Otsailaren 5a Santa Aleda Eguna da, eta urteroko ohiturari jarrai tuz, bezperetan aterako dira koplak kantari eta eskean. Elgoibarren hainbat talde ibiliko dira, batzuk kalez kale eta baserri auzoetan besteak. Iaz 75 urte bete zituen kaleko Santa eskeko "Etxegirta"

Ohitura zaharrak berrituz Elgoibar eta inguruak koplak doinuz jantziko dituzte asteburuan

taldea. Otsailaren 3an, larunbatean, goizeko 9:00etan irtengo dira bolatokiko parketik eta herriko kaleak igaro ondoren, San Lazaro Egoitzara joko dute. 14:00ak aldera Errosario Kaleko

Amabirjinaren aurrean salbea ahestu eta ondoren, Baltasar elkartean bazkalduko dute.

Baserriz baserri

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, Elgoibarko Izarrako 30 lagun aterako dira goizeko 8:30ean plazatik, bi taldetan banatuta. Egun osoz baserriz baserri arituko dira kantuan eta indarrak hartzeko bazkaria eta afaria San Migel auzoko elkartean egingo dituzte.


Meabe, Ziarda, Areitio eta Narbaiza koplari lanetan eta Ekaitz eta Arantza eta Baltzola anaiak trikitixa jotzen ibiliko dira, San Lorentzo, San Pedro, San Migel, San Antolin eta Urruzuno auzoetan.

Azkenik, GAZ-T asisialdi taldeko gaztetxoak ere koplak kantari aterako dira igande goizean. San Roke bailaran ibiliko dira eskean eta batzen duten dirua GAZ-T taldekoen ekintzetarako izango da.



'Etxegirta' taldekoak kalez kale ibiliko dira eta Elgoibarko Izarrakoak, baserrietan.

"Liburuak" argazki erakusketa izango da ikusgai Kultur Etxean otsailaren 5etik aurrera 39 argazkilarik 45 argazkiz osatutako bilduma da



Liburuen enkuadernazioa, diseinua eta maketazioa hartu dituzte kontutan, ez liburuak komunikazio bezala

Otsailaren 5ean irekiko ditu ateak Elgoibarko Kultur Etxeko erakustokian "Liburuak" argazki erakusketa. Taldean egindako bilduma hau Valentziako Railowsky foto-libreriaren eskutik iritsiko da Elgoibarrera. Railowskyren 15. urteurrena dela eta egindako erakusketa honetan izen handiko argazkilarik euskaldunek, espainiarrek zein nazioartekoek hartu dute parte.

Argazki guztien ardatza hat bera da: liburuak. Baina beti ere liburuak objektu bezala erabilia eta idealizatuta. Hau da, liburuaren enkuadernazioa, diseinua, maketazioa... hartu dituzte kontutan, ez liburuak komunikazio eta jakinduria bide moduan. Autore bakoitzak bere estiloan emaitza ezberdinak lortu ditu: batzuk liburuarekin jolas eginaz abstrakzioak sortuz, besteek irakurle zein idazleei argazkiak eginez.

Ongarri argazki taldeak, Elgoibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz antolatutako erakusketa otsailaren 5etik 24ra izango da ikusgai, astelehenean larunbatara, iluntzeko 19:00etatik 21:00etara,



Begoña Odria San Roke *anzoko* Bekoeboe baserrikoa da. 20 urte besterik ez zituela sartu zen "Compañía Santa Teresa de Jesus" kongregazioan eta moja izateko erabakiaz gain, beste bat ere hartu zuen, Hegoameriketara joatea. Lehendabizi, Colombian egin zituen bost urte baina egun, 25 daramatza Venezuelan, Caracasen, irakaskuntzan murgilduta. Hiru urtean behin etorri ohi da Begoña Elgoibarrera eta oraingo bidaia honetan berarekin hifz batzuk egin ahal izan ditugu. Dagoeneko Caracaserara bueltan izango da.

"Berriz jaiotzekotan, moja sartu eta Venezuelara bueltauko nintzake"

- Nola gogaraten duzu erbestera joan zinen lehen aldia?

1964an, moja sartu nintzanean, hanakixan kongregazivak aukera hori ematen zabala. Goiekuek kanpora juteko bajio nahala ikusi zaben eta erahakixa hartzeko eskatu zien. Nik kana bat bialdu nion familixiari eta nere hokaziva bazan, juteko esan zien. 1969xan joan nintzan lehenengo aldiz Hegoameriketara eta Colombian ein nittuan host urte.

- Zer egin ohi duzu egun normal batean?

Gure kongregazivak eskola bat daka eta umiak 7:20xan ailegatzen dianeaz, gu goizao jaiki bihar gera. 5:0{letan altxau eta bakoitzak ordu erdi daka garhittasunak eitzeko, jantzi eta errezuak eittera juten gera. Meza ondoren, gosaldue eitten dou, 6:45ean, umiak etortzerako prest egoteko. Bazkal ostian, klase partikularrak ematen dittugu edo bestela geuretzako denboria hartzen dou.

- Desberdintasun handia al dago hemengo bizimoduaren eta hangoaren artean?

Ikaragarrixa. Hemen askoz ere trankilidade haundixaua dao. Han bildur haundixa dakagu. Edozein pistoliakin urtetzen da eta atrakoren baten arriskuan gaude. Nik erlojua ere kendu eitten dot kalera urtetzerakuan. Bestela. Caraeasko jencia oso ospitalarixua da. Kaskuan bizimodu altuaua dao baina rantxuetan, hirixan kanpoaldian, oso pobriak dia. Izatez, Venezuela oso aberatsa da, baina gobernuak eta jende handi horrek hartzen dabe dana.

- Berriz jaiotzekotan, moja sartu eta Venezuelara bueltauko nintzake. Erabakixa gogorra da, baina nik ezkontziakin konparatzen dot, "bettrako" da eta behar luke, gainera.

- g Gogoan al duzu han pasatutako momenturik gogorrena?

Bi dittut oso goguan, Bata, Chavezen estatu kolpia, fmnkotiradorien eta ejerzitian tiruen artian eon baiginan hiru egunetan. Bestia, berriz, iazko ufalak, 22,000 hildako izan baitzian. Gu laguntzen ihili ginan eta eskola ere "eentro de aeogida" moduan ipini genduan.

- Bidalitako laguntzak, benetan iristen al dira?

Ufaletan adibidez, laguntza danak ez zian ailegau. Interes asko zatian tartian, hilabete batzuetara hauteskundiak zian eta dint asko Gobernuak eruan zaban. Biderik onena Caritas, Manos Unidas, Medieus Mundi, Gurutze Gorria eta holakuak dia, jarraipen bat ematen dabelako. Hauek oso seguruak dira. BARRENen bidez eskerrak eman nahi diuet laguntza bialtzen daben daneri eta benetan ailegatzen diala esan nahi diet.

- Laster bueltatuko zara berrit, ez al dizu familia lagatzeak penarik ematen?

Ez. alderantziz, ondo daudela ikusi dot eta gustura bueltauko naiz berrit ere lanera, bestela ezingo nintzateke hizi,

O
O

t Z

O

L11

Jon Gonzalez elgoibartarrak Euskadiko rally eta igoera txapelketak irabazi ditu Bere mailako lasterketa guztietan garaile izan da

Jon Gonzalez elgoibartarra da Euskadiko rally eta igoera txapelketetako txapeldun berria klase 4' mailan. Saillkapen orokorrean, berriz, hirugarren izan da Euskadiko rally txapelketan eta 5. Euskadiko igoera txapelketan. Bost klase edo maila daude eta Jonek 5. klaseko Mitsubishi eta Ford Seort Crosword moduko autoen aurretik sailkatzea lortu du, herez kotxe eskasagoa eduki arren. Jonen autoa Renault 5 GT Turbo bat da. 1.400 zentimetro kubiko ditu, eta 930 kg pisatzen ditu. Pisu hori mugitzeko 180 zaldiko potentzia dauka. Guztira 20 rally eta igoera ingurutan hartu du parte piloto elgoibartarrak eta bere klaseko lasterketa guztiak irabazi ditu, "karrera guztiak amaitzeko zortea izan dut eta erregulartasun horrek eman dit titulua".

Babesleak behar

Datorren denboraldiari begira, rally



txapelketa izango da Jonen helburu nagusia, "rally-etan zentratuko naiz datorren denboraldian eta igoerarik garrantzitsuenetan bakarrik hartuko dut parte". Momentuz babesle baten bila dabil Jon, txapelketa hauetan aritzeko diru asko hehar baita. Iazko San Bartolome jaietan adibidez, dirua lortzeko txosna bat jarri zuen, "babesleak

Renault GT Turbo bat gidatuz lortu du Jon Gonzalezek Euskadiko Rally eta igoera txapeldun izatea.

lortzea izaten da zailena. Alde horretatik ditudan babesleak eta batez ere lagunak asko lagundu didate. Beraiek gabe ezin izango nuke ezer ere egin".

aZikloturisten irteera otsailaren 4an, domekan

Elgoibarko Lagun Taldea'k antolatuta, datorren domekan, hilaren 4an, urteko 4. zikloturisten irteera izango da. Plaza Handitik irtengo dira goizeko 10:00etan, eta honakoa izango da egingo duten Elgoibar, Deba, Mutriku, Ondarroa, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Deba eta Elgoibar. Guztira 74 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

Unai Zulaika IHaundliko kapitainak luthola laga du

pasa den zapatuan, hilaren 27an, Zarautz taldearen aurka jokatu zuen bere kirol bizitzako azken partidua Unai Zulaika elgoibartarrak. 'Haundi'ko kapitainak futbola eta lana ezin uztartu izanagatik, eta familiari denbora gehiago eskaini ahal izateko hartu du erabaki hau. 1987-88 denboraldian 'Haundi'rekin clebuta egin zuenetik 10 denboralditan jantzi du 'C.D. Elgoibar'ko kainiseta Zulaikak. Urte horietan futbolaren gazi gozoak ezagutzeko aukera izan du, tartean bigarren B mailara igoera. Urte hauetan guztietan egindako lanaren eskerretan eta taldeari erakutsi dion maitasunagatik, Julen Konde, 'C.D. Elgoibar'ko presidenteak,



Julen Konde presidenteak Unai Zulaikari oroigarria eman zion momentua.

oroigarri bat eman zion azken partidua jokatu aurretik. Dena den, Unai taldearekin harreman zuzena izaten jarraituko du, zuzendaritza lanetara pasako baita.

Luis Outumuro elgoibartarrak irabazi du Bergarako Motokros Txapelketa

Elgoibartarrak lehen 3 postuetan amaitu zuten senior malan

Badirudi motor munduak ez duela sekreturik elgoibartarrentzat, batzuk lau gurgipilen gainean eta beste batzuk biren gainean, baina fin dabilta azken aldian. Pasa den urtarrilaren 20an eman zitzaion hasiera motolums denborahliari Bergarako Ubera auzoan, eta senior mailan Txusko Moto Kluhekoak izan ziren jaun eta jabe. Luis Outumuro elgoibartarrak irabazi zuen lasterketa Iokatzek gainezka zegoen zirkuitoan, eta hori gutxi halitz bigarren eta hirugarren sailkatuak ere elgoibartarrak izan ziren, Gorka Garate eta Aitor Osoro, alegia. Urtzi Etxabek ere hartu zuen parte, baina arazo mekanikoen erruz bertan behera Iaga behar izan zuen proba.

Bestalde, Aitor Osoro elgoibartarrak Granadako 6 Egunak Nazioarteko Enduro Txapelketan hartu du parte Andaluzia aldean.



Lehen 3 sailkatuak podiumean ageri dira. Hirugarrenari dagokion lekuan ez da Aitor Osoro ageri, ordenagailua nahastu egin baitzen sailkapena ematerakoan.

Txapelketa hau Munduan egiten den garrantzitsuenetakoa da. Bertan, Paris-Dakarreko piloturik ezagunenek hartzen dute parte, besteak beste.

Mora anaharrebek urrezko lau domina irabazi dituzte Cipuzkoako Judo Txapelketan

Arrasateko "Uarkape" frontoian jokatu zen Gipuzkoako Judo Txapelketan 7 domina lortu zituzten "Ibai Kirol Klub"eko judoek. 7 dominetatik 4 urrezkoak izan ziren, Maialen eta Egoitz Mora anai-arrebek lortu zituztenak, hain zuzen ere. Egoitzek 90 kg.z azpiko junior eta senior mailan jantzi zuen txapela eta Maialenek, berriz, kadete eta jubencil mailako Gipuzkoako Txapela eskuratu zuen. Emaizta hauei esker, domekan, hilaren 4an Leioan jokatu den Euskadiko Judo Txapelketan parte hartzeko sailkatu dira. Gainontzeko judoek dagokienez, Zuriñe Polok zilarrezko domina eskuratu zuen kadete mailan. Zuririk ere Euskadiko txapelketarako sailkapena lortu du. Josu Idiakezek eta Xabier Gonzalezek



brontzezko domina irabazi zuten bakoitzak bere pisuari dagokion kategorian. Azkenik, Andoni Gareiak eta Andoitz Agirregomezkortak 5. postuan amaitu zuten txapelketa.

EMAITZAK

Futboia

Haundi 0 Zarautz 2 (Pref.)
Elgoibar 1- Ordizia 2 (1. erreg.)
Elgoibar 0- Spot. Herrera 4 (Oho. ini.)
Elgoibar 2- Allerru 1 (Oho. jub.)
Intxaurre 4- Pedrusko 3 (1. erreg.)
Billabona 4 Elgoibar 1 (1. kad.)
Amaika Bat 1 - Elgoibar 3 (Neskak)

Eskubloia

Gaur Elg. 16 - Usurbil 16 (Kad. mut.)
IMH Elg. 34 - Trapagarar 28 (Senior mut.)
Tecnomeca Elg. 35 - Corazonistas 21 (Kad. mul.)
Pneumax Elg. 7- Corazonistas 21 mul.)
Askartza Cla.22 - Pagoaga Elg. 15 (Kad. nesk.)
Askartza Claret 15 Urcela Elg. 21 (Jub. nesk.)
Arrate 24 - Tecnifuelle 10 (Senior mut.)
Aloña-Merdi 26 - IMS Elg. 19 (Senior nesk.)

Areto Futbola

Zur Ta Lur 4 Cocinas Urtaro 6 (1. maila)
Beti arin 1 Zur Ta Lur 7 (Euskal liga)

Esku pilota

Udaberri Txapelketa
Agirrebeña/Ulazia 22 (Lagunak)
Txapartegi/Zurutza 5

Mujika/Aburuza 20
Ansola/Balzola 22 (Lagunak)

Debarroko Txapelketa

Txurruka/Rodriguez 22 (Sorafuze)
Agirrebeña/Ulazia 12

Azagirre/Fernandez 22 (Soraluze)
Ubera/LoIola 7

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 3
16:30 Ped rusko - Euskalduna (1.erreg.)
18:15 Elgoibar Urola (Keskak)
Igandea, 4
12:15 Elgoibar Analetura (1. kad.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 3
15:45 Gaur Elg. - Donibane (Kad. mul.)
17:00 IMS Elg. - Elorriu (Senior nesk.)
Igandea, 4
11:00 Tecnomeca Elg. - Escolapios (Kad. mut.)
12:30 Pneumax Elg. Escolapios (Jub. mut.)

Areto Futbola, Kiroldegian

Larunbata, 3
19:00 Zur ta Lur Mazustegi Bilbao
Eskualdeko Txapelketa
larunbata, 3
9:15 Ceda el vaso - Aizkorak Mendibil
10:00 Rezola - Vulthur Griphus
10:45 La Mosca gau River Resources
Igandea, 4
9:00 Bar Tupi Azpi - A mi me gusta el piriripipi
9:45 Horacio The Ravel's

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdicit da.

/1" Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Donostiako enpresa baterako **komertziala** behar da. **ERREF: 43728/2.**

Debagoieneko enpresa baterako **finantzako 20 aholkulari** behar dira. **ERREF: 42030/3.**

Gastelzko enpresa baterako **ekoizpen eta kalitateko arduraduna** behar da. **ERREF: 44628/1.**

Urola kostako enpresa baterako **bulego tekniko baterako arduraduna** behar da. **ERREF: 44659/1.**

Urduluzen kokaturik dagoen enpresa baterako **nazio mailako salmentetarako arduraduna** behar da, **ERREF: 45194/2.**

Eskainiza hau interesgarria gertatzen bazaizu eta lortu nahi izonez gero, gogoan hartu eskaintzaren erreferentzia. Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonon deitu edo Eigorbarren dituen zentru laguntzaile trauetako batera deitu Elgoibarko Instautua (Alberto burri-castillo 943 74 80 19 edo IMH (Ekaitz Mendizabol) **943 74 41 32** isdefonora.

• Ordenadore eta sare lokaletako teknikoa behar da. Gida barmena beharrezkoa da. Curriculumak Elgoibarko **8. postakutxatilara** bidali.

• Asteburuelan eta jaiegunetan lan egiteko mutilak behar dira. **zr. 943 74 02 41.**

Emakume/neska euskalduna behar da bi haur zaintzeko eta etxeko lunak egiteko. **zr 943 74 36 60.** (14:00tik-16:00ra eta 21:00tik-23:00ra bitartean deitu).

• Bi haur zainzeko eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da, goizeko 7:30etik aurrera. **zr 687 44 78 42.** (21:00tik-22:00ra bitartean deitu).

* Sukaldean laguntzeko emakumea behar da. **zr 943 81 56 08.**

• Debako inberna batean kamare-roa behar da. **z. 943 19 25 40.**

* Tabernan lan egiteko mutil hat behar da. Astecn zehar arratsaidentan eta aste bukaeretan. **s. 943 74 28 97.**

.1. mailako ofiziala behar da mandrinadoran lan egiteko. Euskara beharrezkoa da. **zr 943 74 12 97/ 943 74 06 64.**

Lana

ESKAERA

• Esperjentiadun emakumea eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. ta. **610 05 32 74.** (13:00tik 16:00ra deitu).

• Geriatria eta klinikako auxiliarrak gaixoak eta edadetuak zaintzen dituta. **609 77 01 33.**

*Neska eskaintzen da portalak garbitzeko **17679 21 93 01,**

Orduka tcm egingo nuke etxeak garbitzen edo umeak zaintzen. Justa. st **943 74 35 05.**

ESKAINITZA.

• Neska euskalduna behar da bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. **zr- 656 78 13 95/ 943 74 34 86,** (19:00tik-22:00ra).

Orainko tabernarako kamareroa behar da egunero lan egrieko. **12 943 74 42 65.**

• Emakume euskalduna behar da goizetan bi haur zaintzeko. **s 626 23 75 70/ 943 74 15 16.**

Etxebizitzak

• Pisu berri bat alokatzen dut zen-truan. Altzari eta guzti. **zr 943 20 30 83.**

*Pisua salgai Urasandin. Oso eguzki-tsua. 3 logela, sukalde, bi komun eta egongela ditu. **tr 943 74 10 00.**

• Pisu hartuko nuke alokairuan. **zr 669 73 17 74,** Ibon.

• Etxoak alokatzen dira Cauterets, Frantziako Pirinioan. Ski estazioetik 200 metratarra. 2/4/6 plaza. 20.000 pta.tik 30.000 pta.ira bitartean asteburda. **tr 0033562 925324.** Rosa.

• Pisu bat alokatuko nuke. **zr 943 20 01 01.** Idoia.

• Pisu bat behar dut, logela eta arropa garbitzeko eskubidearekin. Erdigune-tst **943 74 42 92,**

Lokalak

♦ Bezerodun taberna bat alokatzen da Eibarren. :rr **943 12 19 49.**

41,okal bat alokatzen da Santa Anclan. trr **943 74 12 83.**

Garajeak

♦ Arregliorreko dorreen azpian garoja solgai. -**zr 943 74 07 62.**

Salerosketak

*Bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. **zr 656 78 98 82.** (18:00aurrera).

*Nintendo 64 jokua (Shadow Man) saltzen dut. ts **943 74 41 91.** (Gonzalo).

♦ Boogie bat saltzen da prezio onean. **646 39 87 39.** (Gauze).

• Ohea egiten den sofa salgai. 3 plaza, 1,35. 11. **943 74 20 70.**

• Golf GT1 16V salgai. SS-AF. 350.000 pter. -Er **606 52 50 18.** Sergio.

Arropa lehorgailua salgai. Crolls markakoa da eta egoera onean dago. Gutxi erabilia izan da. 15.000 pia. **zr 609 77 01 33.**

• Ford Fiesia XR2 salgai: 1600-103 CV. B-JS. Merke: 85.000 pta. Gauze deitu. «n- **943 12 08 22.** Aitor.

Bestelakoak

♦ lagun'etik Merkatu Plazara bitartean belarrirako zuri bat galdu dul. **% 943 74 35 05**

• Plaza Merkatu inguruan gijizak topatu nituen, Koloreredun (gorria, urdina eta morea) ilabero bat dute eta kobxeko giltza dago tartean. BARREN astekarian utzi ditut.

• Mendiko polaina granateak aurkitu ditut Urasandi kalean. **943 74 33 16.**

* Caritasek haurrentzaka 'kotxesilla' bat du emateko. **tr 943 74 15 09.**

• Abuztura arte 'pastor alernan' arrazako txakur bat gordetzeko txabola bat behar dut. Leire. **zr 658 71 08 44.**

*Gabonzahur egunean urrezko eratzun bat galdu nuen. at **658 10 59 34.** Kristina.

Partikularrak

• Administrazio eta enpresa zuzendari-tzak 1. mailako matematika partikularrak hartuko nituzke. **943 74 20 74.**

• Turismoko ikasle batek kontabilitateko klase partikularrak emango dizkion norbait behar du. scr **943 74 41 70.**

• Mikrobiologia eta ingurugiro teknikoan lizentziatuak, kimika, biologia, Fisika eta ingurugiroarekin zerikusia duten gaien klase partikularrak ematen ditu. (13:00tik-18:00ra bitartean deitu). **szr 943 74 29 85** (Maria).

Agurrak

• Zorionak **amamo**, gaur, hilaren 2an, urteak bete dituzulako. Familiaren eta bereziki, Sararen, Mariaren eta Elixabeten partez.

• Zorionak **Pedra Uraini**, hilaren leian urteak bete zituelako. Bere emaztearen eta alaben partez. Aupa zahar-txo!

*Zorionak **Estelari**, urtarrilaren 27an urteak bete zituelako. Tamara eta bes-le persona misterioetsuen partez.

*Zorional **Arri-txikiri**, hilaren 30ean urteak bete zituelako. Persona misterioetsuen partez.

• Zorionak **Nereari**, hilaren 30ean urteak bete zituelako. Etxeko eta bereziki, Olatz ahizparen partez.

• Zorionak **Tere Flores**, gaur urteak bete dituelako. Egun ona pasa deza-zula zure alaba Jennjfer eta senarraren partez,

Agurrak



• Zorionak Jon Ander Martin hilaren 5an 5 urte bete zituelako. Gurasoen eta familiarien partez.



• Zorionak Garazi Ansolort, datorren otsailaren 9an 8 urte beteko dituefako. Gurasoen eta anaia Iñakiren partez.



• Zorionak Soraya Urreistiri gaur, hilak 2, 11 urte bete dituelako. Familiarien eta bereziki, Leireren, Andoniren, Sarairen eta Daviden partez.



• Zorionak Oihone eta Nerea zuen 14. urtebetetzean. Ongi pasako zenutelakoan gaude. Mila muxu eta besarkado handi bat Ikastolako DBH 2koen partez.



• Zorionak Usuari, igandean, hilaren 4an, urteak beteko dituelako. Ondo pasa eta ea runbotean ospatzen dugun. Balcakizu nortzuk garen.



• Zorionak Blanquiri, otsailaren 1ean urteak bete dituelako. Zorionak amal Familiarien eta bereziki, hiru seme-alaben partez. Ondo pasa mahaspasa!



• Zorionak Oscar Martinezi, hilaren 6an 14 urte beteko dituelako. Gurasoen eta arrebairen partez.



• Zorionak Cristiani eta Rauli Koadrilako guzietan partez.



• Zorionak Yolanda Munin Freireri, hilaren 8an 17 urte beteko ditudako. Ondo pasa eguna. Gurasoen partez. Muxu handi bat.



• Zorionak Miren San Andresi, otsailaren 1ean urteboa bete zuelako. Familiarien, Maiderren, Gorkaren, Nerearen eta Leireren partez.



• Zorionak Arritxu Ziallzetan, otsailaren 4an urteak beteko dituelako. Gurasoen, senideen eta aitabilir eia anichtxi diren losuren eta Larrai en partez muxu handi bai eta 14 tirakada.



• Urteak betetzeko eguna rritsi zaizue. la enroilaizen zaren eta bien artean "San Blas" eder bat egiten diguzuen. Koadrilakoak.

Neska eta mutil gazteentzako
MODA

berenjena
JANTZIDENDA

SAN BARTOLOME, 28 · Tel. 943 743 320

HERRI-GAİN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
IT 943 74 30 40 ELGOIBAR

2 BARIXAKUA

22:30 ANTZERKIA

Antzezlan: "Kaio luma zikina" (euskaraz)
Taldea: 'Maskarada' antzerki taldea
Herriko Antzokian

3 ZAPATUA

9:00 SANTA ESKEA KALEAN

Antolatzailea: 'Etxegiña' taldea

9:00-13:30 ATLETISMOA

(Eskolarteko Kirola)

Mintxetan

12:00 ZAZPIKI IRRATIAREN

BATZARRA

Ganbaran

16:00 BILBOKO

MANIFESTALDIRAKO AUTOBUSA

"Euskal Presoak Euskal Herrira"

Irteera: Plaza Handitik

Tiketak: ohiko lekuetan

19:30-22:15 ZINEA

"Ballame el agua"

4 DOMEKA

11:30 SANTA ESKEA

BASERRIZ BASERRI

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19:30-22:15 ZINEA

"Bailarne el agua"

5 ASTELEHENA

19:00 ARGAZKI ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Gaia: "Liburuak"

Kultur Etxean, hilaren 24ra arte

Antolatzailea: Ongarri Kultur Elkarte

22:15 ZINEA

"Bailarne el agua"

8 EGUENA

21:30 ZINE KLUBA

"Santitos"

9 BARIXAKUA

22:15 ZINEA

"Lo que la verdad esconde"

IKASTAROAK

Euskara Ikastaroa

Elgoibarko AEK euskaltegiak euskara ikasteko maila guztiak eta EGA zein irakaskuntzan beharrezkoak diren Hizkuntz Eskakizunen ikastaroen matrikula zabalik du. Langabetuek eta ikasleek matrikularen erdia bakarrik ordaindu behar izango dute, Udalaren laguntza izango baitute.

Matrikulatzeko edo informazio gehiago nahi izanez gero, pasatu AEK euskaltegitik: Plaza Txikia, 3 edo deitu 943 74 13 32 telefonora.

Pisua kontrolatzeko ikastaroa

'Pisua kontrolatzen ikasteko laguntza taldea' izenpean profesional desberdinek ikastaroak eskainiko dituzte martxotik ekainera bitartean. Hasteko, loditasunari buruzko hitzaldia izango da otsailaren San, ostegunean, eta bide batez ikastaroaren nondik norakoak aurkeztuko dira Eibarko Portalean, arratsaldeko 19:00etan. Taldean pisua galtzeko ikastaroak, berriz, larunbat goizetan izango dira 10:00etatik 12:00etara. Izena emateko azken eguna otsailaren 15a izango da. Telefonoak: 943 12 12 97 edo 656 71 61 19.



"SantRos"

Zuzendaria: Alejandro Springall.

Antzezleak: Dolores Heredia, Demian Bichir, Alberto Estrella. Esperanza 35 urteko emakume ederra da. Bere alaba bakarra, Blanca, gaixotasun ezezagun batek hilko du ospitalean, ezustean. Birus misteriozua gehiago zabal ez dadin, berehala ehortziko dute Blanca eta Esperanzak ezin izango du gorpua azken aldiz ikusi. Hori dela-eta ez du alaba hil zaionik onartuko eta mirarrietan sekulako fedea duenez, alaba berpiztuko den itxaropena piztuko zaio. Halako batean San Judas Tadeo agertuko zaio Esperanzari eta galdu duena bilatzeko bide arraro baten berri emango dio.

agenda

DEAILDIA

Elgoibarko Eusko Alkartasunak adierazi nahi du, otsailaren 8an, ostegunean, arratsaldeko 19:30ean Kultur Etxean, Marko Politiko Juridiko berriaren proposamena aurkeztuko dela. EAK bertara azaltzeko gonbidapena egin nahi die herritar guztiei.

TXANGOAK

Otsailaren 11n, domekan, Amabirjinaren Eguna ospatzeko Lourdes-era (Frantzia) txangoan joateko aukera izango da. Goizeko 6:15ean irtengo da autobusa Elgoibartik. Bidean gosaltzeko geldituko dira eta Lourdesera iristean Kalbarioak egingo dituzte. Meza entzun ostean, Alliance hotelean izango da bazkaria. Guztia 4.100 ptaren truke. Informazio gehiago nahi izanez gero eta erreserba egiteko honako telefono hauetara deitu: 943 74 08 22/ 943 74 12 53/ 943 74 23 22.

ANTZERKIA

KORRIKA 12a martxoaren 29an hasiko da Gasteizen eta apirilaren 8an bukatuko da Baionan. Korrika guztietan egin ohi den bezala, hilabete batzuk lehenago Korrika Kulturala hasten da. Elgoibarko AEK euskaltegiak Korrika Kulturalan sartzeko kultur ekintzak proposatu dizkie Udaleko Kultura eta Euskara Sailei. Beraz, otsailean hasi eta apirilera arte, hainbat jarduera antolatuko ditu Udalak. Lehenengo saioa gaur, hilak 2, izango da, Maskarada taldearen "Kaio Luma Zikina" antzerki lana, hain zuzen ere. Ikuskizun honen gaia Gabriel Aresti euskal poetaren lana eta bizitza da. Saioa gaueko 22:30ean hasiko da Herriko Antzokian.



zine

KARTELDEGIA

ELC:01BAR, Herriko Antzokia

at ame agtitt

Zapatua: ::19:30-22:15

Domeka: 19:30-22:15

Astelehena: 22:15

"Santitos"

Eguena: 21:30

"Litnite vertical"

Barixakua: 22:15

Zapatua: 17:00-19:30-22:15

Doineka: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: *19:30- :":15

"Granujas de ntedio peto"

Barixakini: 19:30-22:15

Zapatua: 19:30-22:15

Domeka: 19:30-2¹:15

Astelehena: 19:30-22:15

Islartitzena: *19:30- *":15

"Granujas de medio pelo"

Zapatua: 17:00

Domeka: 17:00

"Scary Movie"

Zapatua: 17:00-19:30-22:30

Domeka: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: '19:30

"La sabiduria de los corodrilos"

Eguena: 20:00

*Ikth;learen eguna

1111,11,11

dduhci; v 1111,11,1111,,



"Bailame el agua"

Zuzendaria: Josetxo San Mateo.


Antzezleak: Unax Ugalde, Pilar Lpez de Ayala, Juan Diaz.

Davidek egunero ikusten du Maria metroan. Ikusi zuen lehen momentutik maitemindu zen eta egun batez berarentzat idatzi duen poema bat ematera ausartuko da, poemaren izenburua "Bafiame el agua da". David berak nahi duelako bizi da kalean eta Mariak ez du birritan pentsatu beharrik izango Daviden atzetik joateko. Tamalez, lan eta etx 'altak hainbat arazoren aurrean jarriko du bikote maitemindua.



Argazki honetan agertzen diren bost neskatok 1951. urtean Madrilén egin zen 'Aeciñi Catficalo kongresu batetik iritsi berriak dira Elgoiharrera. Tren geltokian heldu bezain pronto, ateratako argazkia eta aste honetan ikustera ematen duguna. Garbiñe Uriguenek azaldu digunez, lau egun pasa omen zituzten Madrilén eta kongresuan parte hartuz gain, hiriburua engutzeko ere aprobezta zuten. Hauek dira erretratuan agertzen direnak. ezkerretik eskumara:

Pepita Unzueta, Miren Arrieta, Esther Barrutia, Lucia Gabilondo eta Garbiñe Uriguen.




1991ko otsailaren 2an hil zen
19 urte zituela.

1991ko otsailaren 2an hil zen
19 urte zituela.

X. URTEURRENA

*"Bete dira hamar urte,
bete da hamarkada,
zure aritna, txoria bezala
hegan joan da
baina guk gure artean somatzen dugu
zure infarra, zure begirada".*

Zure koadrilakoak



Elgoibar **ko ikastola**



**Haur Hezkuntzatik
Ikastolan**

**Matrikulazio epea
Otsailaren 5tik 16ra**



14440 441 **Elwlam**



pedro urruzuno, koop. • Ermuaran bide, 7 Posta 53 • 20870 Elgoibar
Tel. 943 74 44 41 • Fax: 943 74 84 36 = elgoibar@ikastoia.net

ELGOIBARKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



ISO 9002

MATRIKULAZIOA

IKASTURTEA: 2001-2002

HAUR, LEHEN eta DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN.

Otsaidaren 5etik 15era.

Herri berriaren eredu

Herri Eskolako Ate Irekien Eguna, ots



Elgoibarko Herri Eskola

Kalamua, 8

Tel.: 943 74 08 79

E-maila: info.eigoibar@educanet.net



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA
UNIBERTSITATE eta
IKERKETA SAILA



Elgoibarko Institutua

San Roke, 1 • Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-maila: bulegoa@elgoibar.hezitek.net